

## 5000 HIZTEGIA ETA SINONIMOEN HIZTEGIA 2015: BERTSIO BERRIAK INTERNETEN

*KARMEL* aldizkariko irakurleok oso ondo dakizuenez, aspalditik ari da *BOSTAK BAT* kultur taldea hiztegegintza jorratzen. Alorrean jardunean egindako hamabi urte luzeetan lan zabala eta sakona burutu izan du. Bidegile ere izan dela esan dezakegu inolako harrokeriarik gabe.

Urteetan Euskara hutsezko hiztegiak –Sinonimoen hiztegiak eta Definiuzioko Euskal Hiztegiak– prestatu eta argitaratzen jardun ondoren hiztegi elebidunen alorra jorratzen hasi zen.

Horrela, *DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA* argitaratu zuen 1996an, hain zuzen ere, gizartearen premia larriei erantzun eta euskararen normalizazio bidean hain ekarpen handia izan zuena. Arrakasta izugarria izan zuela ikusirik, alorra jorratzen jarraitu zuen eta bertsio berri bat kaleratu zuen 2002an, ezinbestekoa baita berriztatze-lanetan jardutea euskararen antzera normalizazio bideak urratzen ari diren hizkuntzen kasuetan.

*3000 HIZTEGIA* izan zen, bestalde, informatika alorrean Euskal hiztegegintzan emandako lehen urratsa. CD-an argitaratzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzaren hiztegi-sarean jarri zen urteetan zehar dohainik eskainiz herritarrei. Hiztegi horrek bide zabala egin zuen, beraz, zenbait ezadostasun zirela tarteko Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdian saretik baztertzea erabaki zuen arte.

*BOSTAK BAT* taldeak, esan bezala, *DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA* argitaratu ondoren lanean jarraitu izan zuen bere datu-base elebiduna eguneratzen. Horrela, datu-base erraldoi horretako material berriztatua eta osotua kaleratu zuen 2009an hiztegiari izena aldatuz, hots, *5000 HIZTEGIA* izena zuela eskainiz. Izena aldatzearen zioa, norbaitek *DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA* bere izenean erregistratua zuelako izan zen. Ez genuen auzitegietara jo nahi izan, halako egintzak oso nahasiak izan ohi direlako, eta aholkulari juridikoen gomendioak go-goan hartuz izena aldatu eta taldearen izenean *5000 HIZTEGIA* berria erregistratzea erabaki genuen.

Eusko Jaurlaritzako saretik *DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA* baztertua izan ondoren, erabiltzaileen eskabide ugari jaso ondoren, bi urteren buruan 2009an paperean argitaratutako *5000 HIZTEGIA* berriro internet bidez eskaini beharra sentitu genuen, halako lan erraldoi berriztatua herritarren esku jartzea euskararentzat oso onuragarri izango zelakoan. Esan beharra dago, bide batez, Eusko Jaurlaritzak saretik kendu izateak kalte handia egin ziela hiztegiari nahiz erabiltzaileei, ordurako interneten leku handia zuelako egina.

Horrela, bada, 2012an Bizkaiko Aldundiak, Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Kutxak sortua eta kudeatua den *AZKUE fundazioaren* sarean eskaintzeko proposamena egin genien ardurdunei. Oso pozik hartu zuten *BOSTAK BAT* taldearen eskaintza, herritarrei alor ezberdinetan egiten dizkieten eskaintza ugarietan hiztegi elebidun batena falta zutelako.

Era berean internet bidez *AZKUE fundazioan* eskaintako bertsioak gehigarri interesgarri bat ere izan zuen 2014an. Hain zuen ere, Euskal Unibertsitateko ikertzaile batzuekin lankidetzan jardunez, hiztegi horretako euskara-gaztelania aldean Euskaltzaindiak baturako onartutako sarrerak ahoskatuta eskaintzea.

Egia esan, oso amu erakargarria gertatu zaie *AZKUE fundazio*koei. Sarean egin dituen bi urteetan lau bat milioi kontsulta jaso ditu. Hori ikusirik, taldeak ahaleginak egin ditu datu-basea berriztatzen eta eguneratzen. Ahalegin informatiko handia eginez, 2014ko abenduan formatu berri erabilgarriagoa eskaintzea lortu genuen, zenbait arazo informatikori irtenbideak eman ondoren. Eskaintzak oihartzun zabala jaso izan du zenbat elkartek, esaterako ARTEZ elkarteak, *AZKUE fundazio*ko sareari estekak egin dizkiotela.

*BOSTAK BAT* taldeko kideok etengabeko berriztatze-lanetan aritu izan gara, eta une honetan datu-basea oso zehaztua eta ugaritua dugu. Beraz, bildu eta aztertutako material kopurua oso ugaria izanik bertsio berri bat eskaintzea erabaki dugu. Bertsio berri horretan herritarrentzat oso onuragarriak diren zenbait berrikuntza nabari dira. Oraingo honetan Euskaltzaindiak lexiko alorrean 2015era arte onartutako sarrera eta azpisarrera guztiak bildu eta eskaintzen ditugu.

### **Berrikuntzak:**

1. Euskaltzaindiak 2015era arte onartu eta argitaratutako sarrera eta azpisarrera guztiak –Fisika, Matematika eta Astronomia alorrean onartutako zerrenda berezietako terminoak ere bai– jaso dira bertan.
2. *Euskaltzaindiaren zerrendan datozen sarrera eta azpisarrerak* –herritarrek euskara baturako onartuak erraz bereiz ditzaten– kurtsibaz eskaintzen dira bai euskara-gaztelania aldean sarrera gisa datozenean bai gaztelania-euskara aldean datozenean.
3. Adierak, Euskaltzaindiak bere HIZTEGIA liburuan dakartzan terminoen kasuetan, bertan proposatutako ordenan eskaintzen saiatu gara, lehenetasunak egokiro zehaztuz.

4. Euskaltzaindiak argitara emandako zerrendetan (1. eta 2. itzulikoetan) jasotzen dituen adibide guztiak jaso ditugu gure datu-basean alboan gaztelaniako bertsioa dutela. Horrela terminoen erabilera jatorraz jabetzeko aukera eskaintzen zaio kontsulta egitera hurbiltzen denari.
5. Euskaltzaindiko termino-zerrendetan adibiderik duten sarreretan nahiz azpisarreretan Euskaltzaindiaren HIZTEGIA liburutik hainbat adibide jaso dira, han ereduizat jo izan direlako.
6. Ongi berezita eskaintzen dira Euskaltzaindiaren erabakien arabera: **a)** beti marraz idaztekoak; **b)** beti lotuta idaztekoak; **c)** marraz edota banatuta idaztekoak; **c)** lotuta edota marraz idaztekoak.
7. Euskaltzaindiko zerrendetan sarrera bikoitza edo hirukoitza duten terminoak bereizketa hori errespetatuz eskaintzen dira, argitasun gehiago dutelakoan.
8. Euskaltzaindiak erabilitako zeinuak errespetatuz honela jokatu da: **a)** [e.] dutela aurkeztutakoak horrela jaso dira eta gaztelania-euskara aldetik kendu. **b)** [b.] dutela aurkeztutako sarrerei gaztelaniako ordezkoa ematen zaie [b.] bidez proposatutako ordezko hobetsia gako artean erantsiz. **c)** Euskaltzaindiak ‘gutxi erabilitzat’ edo ‘zaharkituztat’ edota ‘euskalki maila apalekotzat’ jotzen dituen terminoei gaztelaniako ordezkoa ematen zaio [ikus] bidez gako artean ordezko egokiagoa erantsiz.
9. Hainbat sarrerek mikro baten irudia dute erantsia. Bertan sakatuz sarrera hori ahoskaturik entzun ahal izango da.
10. Aditzen aurkezpenean ongi zehaztuta dagoz aditz horren oina eta oinetik sortutako forma eratorriak: aztertu,

azter, aztertzen; bekaiztu, bekaitz/bekaiztu, bekaizten;  
azkartu, azkar(tu), azkartzen...

11. Aparteko arretaz tratatu dira euskalki alorreko terminoak, batez ere bizkaierakoak

### **Nola kontsultatu:**

Hiztegi berriztatu hau Internet bidez dohainik kontsulta daiteke. Horretarako nahikoa da interneten *5000* edota *5000 HIZTEGIA* eskatzea. Berehala irekiko zaigu bertara joateko aukera. Bertara sartu ondoren hiru leiho agertzen zaizkigu. Bat aukeratu behar dugu. Hori egin ondoren bilatu nahi dugun terminoa idatziko dugu eta erantzuna eskatu.

Sinonimoak	Eus>Gaz	Gaz>Eus
Sinonimoak	Euskara-gaztelania	Gaztelania-Euskara

### **Interneteko kontsulta-lekuak**

- 1) 5000 edo 5000 hiztegia> | Euskara sustatzen - Azkue Fundazioa
- 2) 5000 hiztegia >ADOREZ Hiztegiak
- 3) 5000 hiztegia>Hiztegia.net - ARTEZ (+ Orokorrak)

BOSTAK BAT taldeko kideok beste behin eskertzen diogu *KARMEL* aldizkariari gure ikerlanen berri emateko aukera hau. Zuoi, irakurleoi, oster, gonbitea egiten dizuet gure datu-baseko eskaintza zabal eder horretara hurbil zaitezen eta zuen beharrianetan baliabide oparo hau erabil dezazuen.

*Patxi Uribarren Leturiaga*

**EUSKALTZAINDIAREN  
ETA KARMEL ALDIZKARIAREN ARTEKO  
LANKIDETZA-HITZARMENA**

Euskaltzaindia azken aldi honetan hitzarmenak egiten ari da tresna informatiko berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz hogeigarren mendeko bigarren aldian euskaraz burutu-tako produkzioa eskuratu eta lexiko alorreko ikerketa-lanetan erabiltzeko asmoz.

Egia esan, lexiko alorrean izugarriko altxorra dugu bilduta ibilbidea luzea egin duten aldizkari eta argitalpen-sortetan batez ere. Guzti hori bildu nahi du Euskaltzaindiak *'Lexikoaren Bebatokian'* euskara batua euskalki guztietako ur gardenez elikatu nahian.

Dagoeneko eskuratuak ditu *Anaitasuna, Jakin, Auzpoa, Herria* eta abarretan ageri den lexiko-multzo ugaria. Berdintsu jokatu nahi izan du lankidetzan KARMEL aldizkariarekin ere. Hainbeste urtetan zehar –1931ean hasi eta, etenak eten, gaur arte)– hainbeste idazlek erabilitako euskara eskuratu nahi izan du, euskara baturako datu-base erraldoian sartzeko. Guztira 289 zenbakitan argitaratutako multzo handia dugu. Aldizkari-ko lanez gainera KARMEL SORTA ere erabili ahal izango du Euskaltzaindiak bere ikerketa-lanetarako.

Gogoratu beharra dago beren beregi oso interesgarriak izan ohi dira aldizkarietan argitaratzen diren testuak, era guztietakoak izateaz gainera, hainbatean jendeak eguneroko bizitzan erabili ohi duen euskararen isla izaten direlako.

Mende-erdi luze bateko testigantza eskaintzen digute. Zenbait idazlek, adibidez Aita Akesolo Olivares jakintsuak, bere jakituria aldizkari honetan eskaintzen digu bereziki. Gaien aberastasunak eta jendearekiko hurbiltasunak balio gehigarria ematen diote bertan ageri den produkzio opa-roari.

KARMEL aldizkariaren kasuan, gainera, bide aparta dugu halako materiala euskara batuko altxortegira eramatea, bertan ageri direlako hogeigarren mendeko bizkaierazko idazlerik onenetarikoak: a) zaharren artean: Lino Akesolo Olivarez, Santi Onaindia Baseta, Valentín Aurre-Appraiz, Jose Antonio Gorria Muniozguren, Nikolas Batiz Bilbao, Domingo Agirre (Aita Luki), Sabin Muniategi Astorkia, Eusebio Erkiaga Alastrá, Lorentzo Arteaga Bilbao, Pedro Ormaetxea Aldana, Pedro Pujana Agirregabiria, Martín Uriarte Odriozola, Agustín Zubikarai Bedialauneta, Paulín Solozabal Solozabal eta beste hainbat. b) bizi diren idazleen artean: Luis Baraizarra Txertidi, Patxi Uribarren Leturiaga, Julen Urkiza Txakartegi, Andoni Olea Agirregomezkorta, Luis Arostegi Ganboa, Juan Luis Goikoetxea Arrieta, Ana Urkiza Ibaibarriaga, Miren Agur Meabe Plaza, Andrés Urrutia Badiola, Lorentzo Zugazaga Martikorena, Xabier Kaltzakorta, Anttonmari Aldekoa-Otalora, Iñaki Sarriugarte Irigoien... c) bizkaieraren eremutik kanpoko idazle on ugari ere bai: Karmelo Zubizarreta Arrizabalaga (zuzendari izandakoa), Gotzon Garate Gohartzun, Ángel Bidaguren Arrien, Andoni Karmelo Urrestarazu Landazabal, Joakin Aldabe Juanikotena, Anastasio Arrinda Albizu, Mikel Arruza Egia, Jose Antonio Arze, Juan Mari Arriabalaga Alberdi, Joseba Aurkenerena Barandiaran... (Bibliografía osoa: Karmel, 163. alea. 2008-3).

Gorago esan den bezala, KARMEL aldizkarian ageri diren lanez gainera, *KARMEL-SORTA* ere kontuan izango denez, material-kopuru ugaria eskuratuko du Euskaltzaindiak bere ikerketetan, Euskal Herri osoaren onerako erabiltzeko. Karmel